

**GALDERAK**

**ESKER-**

**ESKUIN**



**INMIGRAZIOA ETA HAURREN  
ESKUBIDEAK**

## AURKEZPENA



**G**aur egun eskolak ume guztiei irekitzen dizkie ateak. Leku askotatik gatoz: Ekuador, Moroko, Kolonia, Kamerun, Polonia, Errumania, Txina, Espainia... Eta gurekin batera gure hizkuntza, jolasak, jakinduria, kankak eta, batez ere, gure ametsak.

Haur guztiok eskubide berberak ditugu, eta horretarako ez du garrantzirik Espainian ala beste leku batean jaio garen edota gure gurasoak espainolak edo arrotzak diren.


Eskubide horietako bat hezkuntza da. Ikasteko eskubidea daukagu etorkizunean txoferrak, medikuak, arkitektoak, elektrikariak, albaitariak edo gobernariak izan ahal izateko. Benetan gure ametsak bete nahi ditugu.

Munduko neska-mutilok parte hartzeko, pentsatzen duguna esateko eta gure ahotsa entzunarazteko eskubidea daukagu.

Ez dugu gerrarik nahi, ezta inolako biolentziarik ere. Elkar ezagutu behar dugula uste dugu. Eta eskolan, beste inon ez bezala, elkarbizitzen ikasten dugu.

Gaur eskolara joaten garen haur guztiok mundu hobe, solidarioago eta zuzenagoa eraikitzeko prestatzen ari gara.





## ¿Zer da emigratzea?

Zure bizilekua utzi eta beste leku batera bizitzera joatea da. Herrialde edo hiri batetik beste batera bidaiatzea da. Ez dauka zer ikusirik oponnetan joate-  
anekin, emigratzen badugu askoz denbora gehiagora-  
ko delako. Beste leku batean bizitza berri bat hasi  
eta haren parte izatea da.

Pertsona bat bere jaioterritik ateratzen denean emi-  
grantea da. Aukeratu duen herrialdean bizi denean,  
inmigrantea da.


## ¿ZERGATIK EMIGRATZEN DUGU?

Batzutan emigratzen dugu gure herrialdea gerran dagoelako edo ikasteko eta lan egiteko aukera hobek nahi ditugulako. Maitasunarengatik edo beste tokiak ezagutzeko bidaiatzen dutenak ere badaude.

Mila arrazoi eduki ditzakegu ametsak errealitate bihurtzeko. Norberak bereak ditu eta den-denak bezain garrantzitsuak dira.



## ¿Noiztik emigratzen dugu?



Historia hasi zenetik gizakiok munduan zehar bidaiatzen dugu. Espainiarrok askotan emigratu dugu eta emigratzen jarraituko dugu. 1950etik 1970era bitartean, adibidez, milaka espainiar abiatu ziren mundu osoko hiri edo herrialde askotara.

## ZERREZAGOA AL DA GAUR EMIGRATZEAP?

Emigratzeko erabakia hartzea zaila da, baita gauzatzea ere. Baina gaur egun askoz errazagoa da harremanak mantentzea: Internet edo telefonoari esker gure familia eta lagunekin hitz egin dezakegu nahi dugunean, eta telebista bezalako komunikabideen bitartez edozein momentutan jakin dezakegu zer gertatzen den planetan edota gure herrian.

Bost axola urrun edo hurbil bizi bagara, asko konpartitzen dugu, asko daukagu elkarbanatzeko eta elkarrekin disfrutatzeneko. Asken finean, mundu-mailako herrixka bateko hiritarrak gara denok.





## ¿NORTZUEK EMIGRATZEN DUTE?

*Edozein pertsona, zu eta biok barne, emigrantea izan daiteke bere bizitzako edozein momentutan.*

*Zure familiak herria utzi badu hirira joateko, bazara emigrantea. Beste herrialde batera bizitzera joan bazara, hor emigrantea zara. Baina lehentxeago edo geroxeago zure herri berriko elementu asko zeure-zeureak ere izango dira: janariak, kaleak, hizkuntza, lagunak...*



# ¿ZER EGITEN DUTE ESPAINIAN EMIGRANTEEK??

*Bizitzea, lan egitea, ikastea, jolastea, barre egitea, maitemintzea...*



*Leku berean bizi garen guztiok auzokideak gara eta gauza asko konpartitzen ditugu: kaleak, jolasak, auzoak, elkarteak, merkatuak, ikastetxeak, sindikatuak... eskubide eta eginbeharrak ere bai. Denon artean mundu hobe, solidarioago eta zoriontsuagoa eraikiz goaz.*

# ¿Zer nolako eskolatan elkaritzen gara beste herrialdeetako ikaskideekin?

*Eskola hauetako atek mundura irekita daude, horietan elkarrengandik ikasten dugu guztiok.*

*Arlo hauetan familia, estatu, herri edo hiri ezberdinetatik gatozen umeek gure bizipenak kontatu eta konpartitu ahal ditugu. Horrela, denok elkarrekin, gizarte berri bat sortuz goaz.*

*Eskola hauetan istorioak kontatzeko, hitz edo barre egiteko era berriak konpartitzen ditugu. Orain abesti, ipuin eta jolas gehiago ditugu. Adiskide berriak ditugu eta mundua beste begiradaz ikusten ikasten dugu.*





## ¿Zein eskubide ditugu haurrek?


Munduko neska-mutil guztiok eskubideak ditugu. Bizitza onuragarri eta zoriontsua izateko behar duguna eskubideak dira eta Haurren Eskubideen Hitzarmena izeneko legean batuta daude. Araudi honetan ume bakoitza gizaseme edo giralaba bakarra eta errepikaezina dela onartzen da.

Hona hemen ume guzti-guztien eskubideak: eskolara joatekoa, jolastekoa, jatekoa, helduek gu entzutekoa, interesatzen zaizkigun kontuetan parte hartzekoa, gaixorik bagaude zain gaitzatelakoa, familia edukitzekoa, nazionalitate eta izena edukitzekoa eta zoriontsuak izatekoa.

Eskubideak ditugunez gero, ez dago arrazoirik inor baztertzeko: azalaren kolorea, jaioterri ezberdina, neska edo mutila izatea, iritzi edo sinismen erlijioso ezberdinak edukitzea...

Haurrok eskubideak ditugu eta, helduek bezala, eskubide horiek errespetarazteko ihardun dezakegu.

# ¿ ZER DA HAURREN ESKUBIDEEN HITZARMENA?



Umeen eskubideak bermatzen dituen Legea da. Munduko herrialde gehienek sinatu duten Nazioarteko Akordio honek haurren beharrei dagokienez Estatuak bete behar dituzten eginbeharrak batzen ditu. 1989ko azaroaren 20an sinatu zen.

Estatu batek Hitzarmena sinatzen badu, betetzera ere behartuta dago. Horren ondorioz, umeen eskubideak babes-  
teko lege berri batzuk egin beharko ditu edo indarrean dau-  
denak eraldatu.



GOGOAN IZAN...



Ile kizkur eta kiribildua eduki  
dezakezu edo uhindua, ibaietako ura  
bezalakoa. Zure azala ortzadarreko kolorezkoa  
izan daiteke. Ezkerra edo eskuina, azkarra edo  
motela izan zaitezke. Gauza asko edo gutxi izan ditza-  
kezu... Zera da benetan garrantzitsuena: PERTSONA  
APARTA, ERREPIKAEZINA ETA PAREGABEA  
ZARA. EZ EZAZU AHAZTU!

Trebea izan zaitezke zenbakiekin edo letrekin. Belarri gogorra izan dezakezu edo ehun metrotik euli bat entzun. Bista txarrekoa izan zaitezke edo arranoek bezala ikusi. Armiarmak bezain abila izan zaitezke edo ontzien adimena eduki. Jaioterria ez da inportatzen dena... Hona hemen garrantzitsuena, benetan kontuan hartzekoa: AMESTEN DUZUNA IZATERA HELDU AHAL ZARA. ARREN, EZ AHAZTU!





Je parle français  
I speak english  
Eu falo português



Hiru hizkuntzaz mintza zaitezke edo bakar batez. Altua edo baxua izan zaitezke. Urruti edo alboan bizi zaitezke. Inportanteena, egiatan garrantzia duena **ESKUBIDEAK DITUEN PERTSONA ZARELA DA. EZ EZAZU AHANTZII!**



Zure bizitzan zehar mota guztietako pertsonekin topo egingo duzu. Batzuez maiteminduko zara, beste batzuk zure adiskideak izango dira. Beste batzuek kontu inportanteak irakatsiko dizkizute. Baten batek bere bizitzaren zatitxo bat oparituko dizu. Beste batzuk zure ondotik pasatuko dira eta ez dituzu berriro ikusiko... Neska eta mutil pilo bat topatuko duzu. Denak berdingabeak eta benetan garrantzitsuak. Ahalegin zaitetz horiek guztiak errespetuz eta maitasunez bizi ahal daitezela.



BADAUKAZU  
GARRANTZIZKO  
BETEBEHAR BAT:  
EUREN ESKUBIDEAK  
ERRESPETARAZ-  
TEA. EZ DUZU  
AHAZTU BEHAR!





Zure izena izan daiteke Marta, Laila, Marcos, Laidy, Pepe, Liu Wang, Takashi, Lilaj, Borja, Yuri, Gladis, Inés, Nambi, Leda, Maritza, Andrea, Ahmed, Arundhati... Benetan funtsezkoa zera da: MUNDUKO NESKA-MUTIL GUZTIOK EZBERDINAK ETA BEREZIAK GARA ETA, GAINERA, DEN-DENOK ESKUBIDE BERBERAK DITUGU. EZ EZAZU AHAZTU


# ¿ZER EGIN DEZAKEGU ESKOLA HAUR GUZTIONA IZATEKO?

BIENVENUE BIENVENIDA WELCOME


🌀 Ikaskide berri bat ailegatzen denean harrera berezia antola diezaiokegu: klasean erabiltzen diren hizkuntza guztiez idatzitako ongi etorriko kartela.



🌀 Gure ikaskide guztien jaioterriak seilatzten dituen mapa mundi erraldoi bat egin dezakegu talde-lanean.





🌀 Astean behin herrialde horietako batera bidaiatuko dugu eta bere tradizioetako bat ezagutuko dugu. Tradizio hori gure eskola-egutegian kontuan har dezakegu.


 Gure lagunen etxea bisita dezakegu. Horrela euren familia ezagutuko dugu, euren amonek prestatzen zituzten janari gozoak dastatuko ditugu eta geroxeago gure gurasoei kontatu ahal izango diegu.



H a b í a u n a v e z . . .

 Gure klaseko norbaitek ipuin bateko hasierako esaldia egin dezake. Atzeko ikaskideak istorioa kontatzen jarraituko du eta horrela jarraituko dugu klaseko ikasle bakoitzak bere partea idatzi arte. Adiskidetasunaren ipuina izango da.



 Esperimentatutako historiaren bat edo haurtzaroaren oroimen gozoren bat idazteko eskaera egingo diegu gure familiei. Horiekin "Bidariaren Liburua" egingo dugu. Liburu hori familiaz familia pasatuko dugu. Azkenik koa- dernatuko dugu eta liburutegian jarriko dugu.

☉ Munduko jolasen bilduma bat hasiko dugu. Gure senitartekoei (gurasoak, osaba-izebak, aitona-amonak...) galdetuko diegu zertan jolasten zuten euren hiri edo herrietan. Espainian bizi ez badira, gutun edo e-mail bat bidali edo telefonoz deituko diegu. Munduko haur gehienok era antzekoetan jolasten ote dugu?




☉ Ikasturteko egun bat jaiegun gisa aukeratu dugu eta gure familiak antolaketan parte hartzera gonbidatuko ditugu. Norbera parte batez arduratuko da. Dena ondo ibiltzeko parte hartu behar da. Elkartasunaren jaia izango dugu.



☉ Gure ametsez osatutako hormirudi handi-  
handia egingo dugu. Gure etxea, auzoa, familia,  
eta abar marraztuko ditugu. Geure burua ere  
marraztuko dugu. Eta gero hausnartuko dugu...  
Zer izan nahi dugu heldutasunean? Hori  
marrazteko gai izango gara?

☉ Neskak eta mutilak ezberdintzen gaituz-  
ten bost kontuz osatutako zerrenda bat egingo  
dugu. Baina konpartitzen ditugun beste  
bost elementuz osatutako beste bat ere bai.  
Eta gure klaseko Haurren Eskubideen Liburua  
idatziko dugu.



Besteengandik ahalik eta gehien ikasi.  
Besteei ahalik eta gehien irakatsi.

# KLASEAN EGIN DITZAKE



¿Zergatik hitz egiten da gero eta gehiago inmigrazioaz?



¿Zergatik joan behar dut herrialde batetik beste batera bizitzera?



¿Zergatik existitzen dira mugak?



¿Eskolara joateko eskubidea daukagu atzeritik gatozen umeek? Eta unibertsitatera joatekoa?



¿Zergatik ikasten da hobeto elkarbizitzen herrialde askotatik etorritako umeak dituzten eskoletan?



Zein galdera egiten dituzu zuk?

# GUN ZENBAIT GALDERA



¿Zer da arrazakeria?




¿Zergatik borrokatu behar da arrazismoaren kontra?



¿Inportantea da eskola berria nire herrialdeko eskolan ikasitakoa?



¿Zergatik da hain zaila helduentzat gure galderak erantzutea?



¿Zein erantzun aurkitzen dituzu zuk?

Coordinación: FETE-UGT y CIDE (Centro de Investigación y Documentación Educativa). Ministerio de Educación y Ciencia.

Textos: Luz Martínez Teñ FETE-UGT  
Liga Española de la Educación y la Cultura Popular

Ilustración y diseño: Mauricio Maggiorini [www.mmaggiorini.com](http://www.mmaggiorini.com)

## UN PROYECTO DE:

**FETE-UGT**



MINISTERIO  
DE EDUCACIÓN  
Y CIENCIA

Centro de  
Investigación y  
Documentación Educativa

cide

## COLABORAN:



Liga Española  
de la Educación  
y la Cultura Popular



**i S C O D**  
**UGT**

*trabajo solidario*



MINISTERIO  
DE TRABAJO  
Y ASUNTOS SOCIALES



MINISTERIO  
DE ASUNTOS EXTERIORES  
Y DE COOPERACIÓN

SECRETARÍA DE ESTADO DE  
INMIGRACIÓN Y EMIGRACIÓN

DIRECCIÓN GENERAL DE INTEGRACIÓN  
DE LOS INMIGRANTES



AGENCIA  
ESPAÑOLA DE  
COOPERACIÓN  
INTERNACIONAL

Páginas Web:

[www.aulaintercultural.org](http://www.aulaintercultural.org)

[www.rayuela.org](http://www.rayuela.org)

[www.mec.es/cide](http://www.mec.es/cide)

[www.fete.ugt.org](http://www.fete.ugt.org)